

Gaizka Astorkizaga euskal preso politikoa isolamendutik atera dute zigor larri bat ezarrita

:: 22/10/2024

Fito eta beste preso bat boxeoan entrenatzen egon ziren, baina kartzelariak haien artean borrokan ibili zirela interpretatu zuen eta isolamendu modulora bidali zituzten.

Pasaden larunbat goizean, Gaizka Astorkizaga "Fito" eta beste preso bat boxeoan entrenatzen egon ziren, beste askotan egin izan duten moduan. Egunak normaltasunez aurrera egin zuen kartzelako gaueko txanda iritsi zen arte. Txanda honetan, kartzelariak entrenatzeagatik zituzten lesioak ikusita, haien artean borrokan ibili zirela interpretatu eta horren parte eman zuen. Gertatutakoa argitu nahi ezean, bai Gaizka zein beste presoak **isolamendu moulura eraman zituzten**, haien eskubideak urratuz, aplikatzen zitzaizen araudia notifikatu gabe eta tratu iraingarriak jasarriz. Astelehenera arte egon dira isolamenduan eta zigor oso larri batekin bueltatu dira haien modulura.

Gaizka Astorkizaga "Fito" aurtengo **otsailean espetxeratu zuten**, une horretan gose greban zeuden bi euskal preso politikori elkartasuna adierazteko banketxeen aurka egindako ekintza batzuegatik. Gainera, irailean **3 urte eta 6 hilabete gehiagoko espetxe-zigorra jaso zuen**; beraz, gaur egun 5 urte eta erdiko espetxe-zigorra betetzen ari da.

<https://eh.lahaine.org/gaizka-astorkizaga-euskal-presopolitiko>